# Xedapen Orokorrak

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**5451**

159/2008 DEKRETUA, irailaren 16koa, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko Dekretua aldatzeko dena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua sortu zuen, organo aholku-emailea izateko, eta 16. eta 17. artikuluetan, Kontseiluaren osaeraren eta funtzioen ildo nagusiak daude ezarrita.

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren osaerari eta funtzionamendu-erregimenari buruzko irailaren 16ko 204/1997 Dekretuak 5/1996 Lege horren 16. eta 17. artikuluak garatzen zituen. Dekretu horrek aldaketak izan zituen geroago, azaroaren 3ko 298/1998 Dekretua eta uztailaren 3ko 124/2001 Dekretua betez. Gerora, dekretu horiek Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuak indargabetu zituen.

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretua aldatzeko beharra, lehenik eta behin gizarte-zerbitzuetan eskumena duen Saileko sailburua Kontseiluaren Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkor Delegatuan eskubide osoko kide gisa sartzeko beharrarekin justifikatzen da, sailburuaren parte-hartzea nahitaezkotzat jotzen baita. Izan ere, agindutako zereginei dagokionez, ageriko arrazoiez gain, 16. artikuluan Gizarte Gaietako sailburuordearen kargua duen pertsonari Kontseiluko lehendakariordearen kargua ematen zaio.

Aldaketaren edukia justifikatzen duen bigarren arrazoia sindikatu erakundeek eta konfederazioek Dekretu hau indarrean jarri arte zituzten lau kideko ordezkaritzara itzultzeko beharrarengatik ematen da. Behin Kontseiluaren Osoko Bilkura osatu ondoren, honako hau baloratu da; Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzen duten sindikatu erakundeen ordezkaritza 3 kidetara murriztearekin argi eta garbi Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza gehien duten eta Kontseiluan azaroaren 3ko 298/1998 Dekretuan sartu zirenetik parte hartu duten 4 sindikatu erakundeak bertan jarraitzeko aukera galdu da.

Hirugarren arrazoi bat honako hau izango litzateke: gizarte-zerbitzuen sektorean parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen erakunde-ordezkaritza duten enpresa-erakundeen, sindikatu erakundeen eta konfederazioen artean kide kopuru paritario bat izendatzea.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

**5451**

DECRETO 159/2008, de 16 de septiembre, de modificación del Decreto del Consejo Vasco de Bienestar Social.

La Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, constituyó el Consejo Vasco de Bienestar Social como órgano de carácter consultivo y establece, en los artículos 16 y 17, las líneas generales de su composición y funciones.

El Decreto 204/1997, de 16 de septiembre, de composición y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social, desarrollaba los artículos 16 y 17 de la citada Ley 5/1996. Dicho Decreto sufrió dos modificaciones posteriores, efectuadas en virtud de los Decretos 298/1998, de 3 de noviembre, y 124/2001, de 3 de julio. Posteriormente, estos Decretos fueron derogados por el Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social.

La necesidad de modificar el Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social se justifica en primer lugar, por la necesidad de incorporar al Viceconsejero o Viceconsejera del Departamento competente en materia de servicios sociales como vocal de pleno derecho en el Pleno del Consejo y en la Comisión Permanente Delegada porque se considera imprescindible su participación ya que, además de por razones obvias en cuanto a las funciones que tiene encomendadas, en el artículo 16 se otorga el cargo de Vicepresidencia del Consejo a la persona que ostente el cargo de Viceconsejera de Asuntos Sociales.

Un segundo motivo que justifica el contenido de la modificación se da por la conveniencia de volver a la representación de cuatro vocales que las organizaciones y confederaciones sindicales tenían hasta la entrada en vigor de este Decreto. Una vez constituido el Pleno del Consejo se ha valorado que con la reducción a 3 vocales la representación de las organizaciones sindicales que participan en el Pleno del Consejo se ha perdido la posibilidad de que sigan presentes las 4 organizaciones sindicales que claramente ostentan la condición de más representativas en la Comunidad Autónoma Vasca y que han venido participando en el Consejo desde su inclusión en el Decreto 298/1998, de 3 de noviembre.

Un tercer motivo sería la conveniencia de designar un número de vocales paritario entre las organizaciones empresariales que ostenten la representación institucional del empresariado de la Comunidad Autónoma del País Vasco con participación en el sector de servicios sociales y las organizaciones y confederaciones sindicales.

Eta azkenik, aldaketa justifikatzen duen beste arrazoi bat honako hau da: gizarte-zerbitzuen eremuko erakundeen, sindikatuen, enpresa-erakundeen, kooperatiben eta profesionalen erakundeen aldeko kideei dagokienez, Herri Administrazioan dauden kideen kopuruan eman behar den derrigorrezko osaera paritarioa, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuko 4. artikuluaren 2. puntuan adierazten den moduan.

Azkenik, beharrezko aldaketa horien sartzea aprobetxatuko da arauaren idazketa bi puntutan hobetzeko: 1.– gizarte-boluntariotzako erakundeak izendapena gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak izendapenarengatik ordezkatzea, gaur egun duen izendapenari eta profilari hobeto erantzuten diola ulertuz; 2.– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko organo ezberdinen barruan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuari buruzko erreferentzia gehitzea.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko irailaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

EBATZI DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuaren 2. artikuluari laugarren paragrafo bat gehitu zaio. Paragrafoak honako hau dio:

«4.– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua bultzatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 13ko 4/2005 Legeak ezartzen duen moduan.»

***Bigarren artikulua.***– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuaren 4. artikuluko 1. paragrafoa aldatu da, eta honela geratuko da idatzita:

1.– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran honako hauek daude ordezkatuta:

a) Jaurlaritza.

b) Foru Aldundiak.

c) Udalak.

d) Sindikatu erakundeak.

e) Erabiltzaileen erakundeak.

f) Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak.

g) Enpresa-erakundeak eta kooperatibak.

h) Gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten profesionalen erakundeak.»

Y finalmente, otro motivo que justifica la modificación es la obligatoria composición paritaria que tiene que darse en el número de vocales de la Administración Pública en relación con las y los vocales de parte de las organizaciones del ámbito de los servicios sociales, sindicales, empresariales, cooperativas y profesionales tal y como se indica en el artículo 4 punto 2 del Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social.

Por último, se aprovechará la inclusión de estas necesarias modificaciones para mejorar la redacción de la norma en dos puntos: 1.– la sustitución de la denominación de las organizaciones de voluntariado social por organizaciones del tercer sector de acción social, entendiendo que se responde mejor a su denominación y perfil actual; 2.– incorporar la referencia a la representación equilibrada de mujeres y hombres en el seno de los distintos órganos del Consejo Vasco de Bienestar Social.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de septiembre de 2008,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se añade un cuarto párrafo al artículo 2 del Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social, que dice lo siguiente:

«4.– Se promoverá la representación equilibrada entre hombres y mujeres en el Consejo Vasco de Bienestar Social, tal y como lo establece la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.»

***Artículo segundo.***– Se da nueva redacción al párrafo 1 del artículo 4 del Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social, que queda redactado de la siguiente manera:

«1.– En el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social están representados y representadas:

a) El Gobierno.

b) Las Diputaciones Forales.

c) Los Ayuntamientos.

d) Las organizaciones sindicales.

e) Las organizaciones de personas usuarias.

f) Las organizaciones del tercer sector de acción social.

g) Las organizaciones empresariales y las cooperativas.

h) Las organizaciones de profesionales que trabajen en el campo de los servicios sociales.»

***Hirugarren artikulua.–*** Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuaren 4. artikuluko 2. paragrafoa aldatu da, eta honela geratuko da idatzita:

«2.– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua berrogeita zortzi kidek osatzen dute; erdiak Herri Administrazioetakoak dira, eta beste erdiak d, e, f, g eta h idatz-zatietan adierazitako erakundeetakoak.

***Laugarren artikulua.–*** Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuaren 4. artikuluko 3. paragrafoa aldatu da, eta honela geratuko da idatzita:

«3.– Honako hauek dira Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko kideak:

a) Herri Administrazioen aldetik:

– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Saileko sailburua; lehendakari gisa jardungo du.

– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Saileko sailburuordea; lehendakariorde gisa jardungo du.

– Gizarte Ongizateko zuzendaria.

– Kide bat osasun-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat hezkuntza-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat etxebizitza-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat kultura-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat lan-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea ordezkatuz.

– Kide bat giza eskubideen arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat droga-mendetasunaren arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat gizarteratze-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat immigrazio-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat ekonomiaren eta plangintza ekonomikoaren arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat turismo-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat herrizaingoaren arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat Eusko Legebiltzarreko Lan eta Gizarte Ekintza Batzordea ordezkatuz.

***Artículo tercero.–*** Se da nueva redacción al párrafo 2 del artículo 4 del Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social, que queda redactado de la siguiente manera:

«2.– En su totalidad el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social se integra por cuarenta y ocho miembros procedentes, por iguales y mitades partes, de las Administraciones públicas y de las organizaciones citadas en los apartados d, e, f, g y h.»

***Artículo cuarto.–*** Se da nueva redacción al párrafo 3 del artículo 4 del Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social, que queda redactado de la siguiente manera:

«3.– Son miembros del Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social:

a) Por parte de las Administraciones públicas:

– El Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de servicios sociales, que actuará como Presidente o Presidenta.

– El Viceconsejero o la Viceconsejera del Departamento competente en materia de servicios sociales, que actuará como Vicepresidente o Vicepresidenta.

– El Director o la Directora de Bienestar Social.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de sanidad.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de educación.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de vivienda.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de cultura.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de trabajo.

– Un o una vocal en representación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de derechos humanos.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de drogodependencias.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de inserción social.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de inmigración.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de economía y planificación económica.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de turismo.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de interior.

– Un o una vocal en representación de la Comisión de Trabajo y Acción Social del Parlamento Vasco.

– Kide bat Foru Aldundi bakoitza ordezkatuz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen lau ordezkari.

b) Gizarte-zerbitzuen eremuko erakundeetakoak, sindikatuetakoak, enpresa-erakundeetakoak, kooperatibetakoak eta profesionalen erakundeetakoak:

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen eta Erretiratuen Probintzia Elkarteen Lurralde Federazioa ordezkatuz.

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren esparruan diharduten erakundeak ordezkatuz, Familia Batzorde Iraunkor Sektorialak proposatuta.

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoan haurren esparruan diharduten erakundeak ordezkatuz, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialak proposatua.

– Kide bat Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ordezkatuz.

– Kide bat gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen erakundeak ordezkatuz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordeak proposatua.

– Kide bat Elkartean Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea ordezkatuz.

– Kide bat ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa (FEVAS) ordezkatuz.

– Kide bat gaixo psikikoen eta senideen Elkarteen Euskadiko Federazioa (FEDEAFES) ordezkatuz.

– Kide bat ezgaitasun sentsorialen esparruan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak ordezkatuz.

– Kide bat droga-mendetasunaren prebentzioaren eta gizarteratzearen esparruan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak ordezkatuz, Droga Mendetasunen Aholku Batzordeak proposatuta.

– Kide bat Etorkinei Laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundea ordezkatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak proposatuta.

– Kide bat orientazio sexualagatiko diskriminazioaren kontra diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko gayen, lesbianen eta transexualen erakundeak ordezkatuz.

– Un o una vocal en representación de cada Diputación Foral.

– Cuatro representantes de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Por parte de las organizaciones del ámbito de los servicios sociales, sindicales, empresariales, cooperativas y profesionales:

– Un o una vocal en representación de la Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco.

– Un o una vocal en representación de las organizaciones que trabajan en el campo de la familia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, a propuesta de la Comisión Permanente Sectorial de Familia.

– Un o una vocal en representación de las organizaciones que trabajan en el campo de la infancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, a propuesta de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia.

– Un o una vocal en representación del Consejo de la Juventud de Euskadi.

– Un o una vocal en representación de las organizaciones de mujeres del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que trabajan en el campo de los servicios sociales, a propuesta de la Comisión Consultiva de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

– Un o una vocal en representación de la Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Elkartean.

– Un o una vocal en representación de la Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con discapacidad intelectual (Fevas).

– Un o una vocal en representación de la Federación de Euskadi de Asociaciones de familiares y enfermos psíquicos (Fedeafes).

– Un o una vocal en representación de las organizaciones que trabajan en el campo de las discapacidades sensoriales en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Un o una vocal en representación de las organizaciones que trabajan en el campo de la prevención e inserción en drogodependencias en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a propuesta del Consejo Asesor de Drogodependencias.

– Un o una vocal en representación de la Coordinadora de ONG's de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes, a propuesta del Foro para la Integración y Participación Social de las ciudadanas y ciudadanos inmigrantes en el País Vasco.

– Un o una vocal en representación de las organizaciones de gays, lesbianas y transexuales que trabajen contra la discriminación por la orientación sexual en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Kide bat gizarteratzean eta gizarte-bazterketa larrian diharduten erakundeak ordezkatuz, Gizarteratze Batzorde Iraunkorrak proposatua.

– Lau kide gizarte-zerbitzuen sektorean parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen erakunde-ordezkaritza duten enpresa-erakundeak ordezkatuz, erakundeek berek izendatuak.

– Kide bat gizarte-zerbitzuen sektorean parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibak ordezkatuz, kooperatibek berek izendatuak.

– Lau kide Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ordezkaritza handiena duten sindikatuak eta langileen ordezkarien, enpresa-batzordeko kideen eta Herri Administrazioen organoetako kideen % 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak ordezkatuz.

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Laneko Diplomatuen Elkargo Ofizialak ordezkatuz.

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak ordezkatuz.»

***Bosgarren artikulua.***– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuaren 12. artikuluko 1. paragrafoa aldatu da, eta honela geratuko da idatzita:

«1.– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkor Delegatua Osoko Bilkuraren organo delegatua da. Osatzen dutenak honako hauek dira:

a) Gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Saileko sailburua.

b) Gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Saileko sailburuordea.

c) Gizarte Ongizateko zuzendaria.

d) Foru Aldundi bakoitza ordezkatzen duen kide bat.

e) Hiru kide Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatuz, EUDELek proposatuak eta Osoko Bilkuran horren ordezkaritza dutenen artean aukeratuak.

f) Bederatzi kide gizarte-zerbitzuen eremuko erakundeak eta gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten sindikatuak, enpresa-erakundeak, kooperatibak eta profesionalen erakundeak ordezkatuz, erakunde horiek Osoko Bilkuran dituzten ordezkarien artean aukeratuak.

– Un o una vocal en representación de las organizaciones que trabajan en la inserción y la alta exclusión social, a propuesta de la Comisión Permanente de Inserción.

– Cuatro vocales en representación de las organizaciones empresariales que ostenten la representación institucional del empresariado de la Comunidad Autónoma del País Vasco con participación en el sector de servicios sociales, designados/as por ellas mismas.

– Un o una vocal en representación de las cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco con presencia en el sector de los servicios sociales, designadas por ellas mismas.

– Cuatro vocales en representación de las organizaciones y confederaciones sindicales que ostenten la condición de más representativas, y de las representativas que hayan obtenido el 10% o más de delegados/as de personal y miembros de comité de empresa y de los correspondientes órganos de las Administraciones públicas, todas ellas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Un o una vocal en representación de los Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Un o una vocal en representación de los Colegios Oficiales de Educadores y Educadoras Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.»

***Artículo quinto.***– Se da nueva redacción al párrafo 1 del artículo 12 del Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo Vasco de Bienestar Social, que queda redactado de la siguiente manera:

«1.– La Comisión Permanente Delegada del Consejo Vasco de Bienestar Social es un órgano con carácter delegado del Pleno cuya composición es la siguiente:

a) El Consejero o la Consejera del Departamento competente en materia de servicios sociales.

b) El Viceconsejero o la Viceconsejera del Departamento competente en materia de servicios sociales.

c) El Director o la Directora de Bienestar Social.

d) Un o una vocal en representación de cada una de las Diputaciones Forales.

e) Tres vocales en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca, a propuesta de Eudel, elegidos o elegidas entre quienes ostentan su representación en el Pleno.

f) Nueve vocales en representación de las organizaciones del ámbito de los servicios sociales, sindicales, las empresariales, las cooperativas y las de profesionales que trabajen en el campo de los servicios sociales, elegidos o elegidas por las personas representantes de dichas organizaciones en el Pleno entre quienes ostentan su representación en dicho órgano.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko irailaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.